

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko legebiltzarkide **Dani Maeztu Perezek**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **IDATZIZ ERANTZUTEKO HURRENGO GALDERAK** egiten dizkio **Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza sailburu Pilar Unzaluri**, "Eusko Jaurlaritzak EAEko hiltegiei emandako diru-laguntzen inguruan".

ZIOA:

Eusko Jaurlaritzak jarduera ekonomikoa sustatze aldera eta lehenengo sektorea sustatze aldera diruz laguntzen du enpresa kopuru jakina. Diruz laguntzen diren enpresa horien artean daude EAEko hiltegiak. Eusko Jaurlaritzak sektorean duen parte-hartzea uzteko asmoa duela adierazi du.

Sektore honetan gobernuak duen parte-hartze maila jakite aldera, hurrengo galderak egiten ditut:

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK:

- 2008an eta 2009an ze hiltegi lagundu ditu diruz Eusko Jaurlaritzak eta zenbatekoa izan da diru kopurua? (Egiten den zerrendan ez da behar Gurokela enpresaren datuak sartzea, ez bada aldaketarik egon 09\10\05\03\0173 espediente zenbakian zehazten den informazioarekin)
- 2010an aurreikusten da EAEko hiltegirik diruz laguntzea edo hiltegiak kudeatzen dituzten enpresen parte diren elkarteak diruz laguntzea?
- Hala bada, ze hiltegi edo/eta elkartek jasoko du laguntza hori?
- Zenbatekoa da Eusko Jaurlaritzak EAEko hiltegi bakoitzean duen parte-hartzea?
- 2009ko ekainetik gaur egun arte Euskal Okelaren lanbidearteko mahaiak egindako bileren aktak eta mahaiak dituen azpi-batzordeen aktak eskatzen dira.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 25ean



Dani Maeztu Perez

Aralar taldeko legebiltzarkidea



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES

A la Mesa del Parlamento Vasco

Dani Maeztu Pérez, parlamentario del grupo Aralar, en virtud del vigente Reglamento, formula a la consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, D^a Pilar Unzu, las SIGUIENTES PREGUNTAS PARA RESPUESTA ESCRITA.

JUSTIFICACIÓN

El Gobierno Vasco al objeto de impulsar la actividad económica y el sector primario va a ayudar económicamente a una determinada cantidad de empresas. Entre esas empresas se encuentran los mataderos de la CAV. El Gobierno Vasco ha manifestado su intención de dejar la participación que tiene en el sector.

Al objeto de conocer el nivel de participación que el Gobierno tiene en dicho sector, formulo las siguientes preguntas:

PREGUNTAS PARA RESPUESTA POR ESCRITO:

- ¿A qué mataderos ayudó económicamente el Gobierno Vasco en los años 2008 y 2009 y con qué importe? En la relación que se haga no será necesario incluir los datos correspondientes a la empresa Gurokela, si es que no ha habido cambios en relación con la información dada en el expediente número 09\10\05\03\0173.
- ¿Se prevé ayudar económicamente a algún matadero de la CAV en el año 2010 o ayudar económicamente a las sociedades que son parte de las empresas gestoras de los mataderos?
- Si la respuesta es afirmativa, ¿qué mataderos o sociedades van a recibir dicha ayuda?
- ¿A cuánto asciende la participación que el Gobierno Vasco tiene en cada matadero de la CAV?
- Se solicitan las actas correspondientes a las reuniones celebradas desde junio de 2009 hasta la fecha por la mesa interprofesional del Euskal Okela y por sus subcomisiones.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2010

Dani Maeztu Perez

Parlamentario del grupo Aralar

